

# BILBAOKO IRETARGI

## BILBAO SONG

Hitzak: Bertolt Brecht, 1929

Musika: Kurt Weill

Bill-en borda Bilbaon

onena zen kontinente osoan!

Dolar baten truke gozo dantzan

edo muturka borroka zoroan.

Sartu ote zinen sekula batzoki hartan?

Ez dut uste aspertuko zinenik han!

Han!

Aulkian putzu bat brandy

pista erdian belarra handi

gorri sabaian Iretargi...

Eta musika?

Hura bai musika!

Beti zen yarritako dirura!

Hi, Joe, jo ezak doinu zahar hura...!

Bilbaoko Iretargi!

Zeu zaitut lekuko...

Inork ez al daki...

galdua ote dago...

Zu ez zinen hara zale, huraxe zen baina

munduan zenik ederrena!

Bill-en borda Bilbaon

mendeak zortzi, urteak maiatza

Frisco-tik lau zaku bete diru

han baitzen ongileon anaiatza:

arrano zapelatz aztore sai putre miru...

gozo lastuko zinatekeen zu han.

Han!

Aulkian putzu bat brandy

pista erdian belarra handi

gorri sabaian Iretargi...

eta lagunak browning banarekin tiroka.

Ti-ro-ka!

Beldurrik ez?

Heldu borroka!

Bilbaoko Iretargi!

Zeu zaitut lekuko...

Inork ez al daki...

galdua ote dago...

Zu ez zinen hara zale, huraxe zen baina

munduan zenik ederrena!

Bill-en borda Bilbaon,

gaur ez da borda baizik aretoa:

dantzaleku zatar arrunt garbi

kafe-antzoki baten antzerakoa.

Jatortasun usain eta neonezko argi,

tenplau sartuko zinateke hemen

Hemen!

Pistan ez da belarrik

brandyak ez dauka indarrik

huts egin digu Iretargik...

eta musika?

Hau zarata, hau durrunda!

Hi, Joe, jo ezak doinu zahar hura!

Bilbaoko Iretargi!

Zeu zaitut lekuko

nik maite nuela...

Hara! Hauxe da letra!

Barkaidazue... aspaldiko kantua da eta...

Bilbaoko Iretargi

Iretargi xahar... Iretargi gorri!

Zu ez zinen hara zale, huraxe zen baina

munduan zenik ederrena!

# BILBAO SONG

Bertolt Brecht

Musik: Kurt Weill

Bills Ballhaus in Bilbao

War das Schönste auf dem ganzen Kontinent.

Dort gab's für einen Dollar Krach und Wonne,  
und was die Welt ihr Eigen nennt.

Aber wenn Sie da hereingekommen wären,  
ich weiß ja nicht, ob Ihnen so was grad gefällt.

Ach!

Brandylachen waren, wo man saß,  
auf dem Tanzboden wuchs das Gras  
und der rote Mond schien durch das Dach,  
'ne Musik gab's da, man konnte sich beschweren  
für sein Geld!

Joe, mach die Musik von damals nach!

Alter Bilbaomond!

Wo noch die Liebe lohnt...

's ist doll mit dem Text!

's ist schon so lange her!

Ich weiß ja nicht, ob Ihnen so was grad gefällt, doch:

es war das Schönste

es war das Schönste

auf der Welt.

Bills Ballhaus in Bilbao

an 'nem Tag gen Ende Mai im Jahre acht,  
da kamen vier aus Frisco mit 'nem Geldsack,  
die haben damals mit uns was gemacht.  
Aber wenn Sie da dabei gewesen wären,  
Ich weiß nicht, ob Ihnen so was grad gefällt.

Ach!

Brandyaschen waren, wo man saß,  
auf dem Tanzboden wuchs das Gras  
und der rote Mond schien durch das Dach,  
und vier Herren konnten Sie mit ihren Brownings schießen hören.

Sind Sie 'n Held?

Na, dann machen Sie's mal nach .....

Alter Bilbaomond!

Wo noch die Liebe lohnt...

Ich kann den Text nicht mehr,

's ist schon zu lange her!

Ich weiß ja nicht, ob Ihnen so was grad gefällt,

doch:

es war das Schönste

es war das Schönste

auf der Welt.

Bills Ballhaus in Bilbao...

heute ist es renoviert - so auf dezent,  
mit Palme und mit Eiskrem ganz gewöhnlich..  
wie'n anderes Etablissement.

Aber wenn Sie da jetzt hereingesegelt kämen,  
's ist ja möglich, dass es Ihnen so gefällt.

Spaß!

Auf dem Tanzboden wächst kein Gras,  
und der Brandy ist auch nicht mehr das,  
und der rote Mond ist abbestellt.

'ne Musik machen sie, da kann man sich nur schämen  
für sein Geld!

Joe, mach die Musik von damals nach.

Alter Bilbaomond,  
das hab' ich oft betont,  
ich hab' sie nie geschont...

Na, das ist ja der Text...

Alter Bilbaomond...

's ist zu lange her....

Ich weiß ja nicht, ob Ihnen so was grad gefällt, doch:

es war das Schönste

es war das Schönste

auf der Welt.